

EDUKIAK:**1. UNITATE DIDAKTIKOA: 1. hiruhilabetea****TÍTULUA:** Zoriona, neurri-neurrian da ona

1.1 Ziurtasuna eta ziurgabetasuna zalantza-iturri

1.2 Ziurtasun-bideen eraikitzen

2. UNITATE DIDAKTIKOA: 2. hiruhilabetea**TÍTULUA:** Urrutiko eltzea urrez, gerturatu eta lurrez. Informazioa sortzen eta haren egokitasuna baloratzen

2.1 Hainbat irudi, ondorioen iturri

2.2 Hainbat adierazpen eta neurri, informazioaren ezaugarri

3. UNITATE DIDAKTIKOA: 3. hiruhilabetea**TÍTULUA:** Ez dago handirik txiki barik. Espazioko objektuak miatzen, irudikatzen eta neurtzen.

3.1 Espazioko gorputzen adierazpenarekin jolasean

3.2 Espazioko gorputzen neurriekin lanean

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:**MATEMATIKA DBH2**

Kontuan hartuko diren aspektuak:

- Ikaslearen jarrera.(interesa, arreta, parte hartzea, euskararen erabilera,.....)
- Lana: klasekoa eta etxekoa.(egunero egin behar da)
- Kontrolak.

Ikaslearen jarrera kalifikazioan isladatuko da.

Ikasturtean zehar hiru unitate didaktiko landuko dira. Unitate didaktiko bakoitza bi osagaik osatzen dute.

Osagai bakoitzaren garapena klasean burutu ondoren, ikasle bakoitzari ikasgaiaren helburu minimoen zerrenda emanen zaio eta horiei buruz antolatuko dira proba idatziak.

Kontrolak:

Osagai bakoitzeko kontrol bat egingo dute ikasleek. Kontrol guztietan, item guztien gehienezko puntuazioa adieraziko da.

Unitate didaktiko bakoitzaren nota:

Unitate didaktikoa osatzen duten osagai bakoitzaren kontrola gehi kompetentziak baloratzeko jarduera bat egingo da.

1. eta 2. Unitate didaktikoen nota:

- Osagaien noten batezbestekoa (beti ere bietan 4 baino gehiago izan behar dute): %80
- Kompetentzien nota: %20.

3. Unitate didaktikoaren nota:

- Osagaien eta kanpoko diagnosi proban izandako noten batezbestekoa (beti ere bi osagaietan 4 baino gehiago izan behar dute): %90

- Konpetentzien nota: %10.

Unitate bakoitza bukatzean, osagaien zatia gainditzen ez duenak, bi osagaien berreskurapena egin beharko du proba bakar batean, gehienez 5 bat lor dezakeelarik.

Ebaluazioko nota:

Ebaluazioan zehar eman den unitate didaktikoarena izango da. Kontrolen kalifikazioak ez ezik, jarrerak eta euskararen erabilpenak ere jokatuko dute azken nota osatzeko, beti ere kontutan hartuta ikasle batek ez duela 4 baino nota altuagorik izango jarreran E(oso txarra) kalifikazioa badu. Kasu hau kenduta, jarreraren arabera puntuazioa jaitsi ala igo daiteke (gehienez jota puntu bat).

Ekaineko nota: Unitate didaktiko guztiak gaindituta izanez gero, hauen guztien noten batezbestekoa izango da.

Unitateren bat gainditu gabe duen ikasleak pendiente dituen unitateen berreskurapena egiteko aukera izango du ekainean, proba batean. Pendiente dituen unitate bakoitzean, gutxienez 5 atera behar du gainditzeko.

Ez ohiko deialdiko nota: Ekainean gainditu ez duen ikasleak, pendiente dituen unitateen berreskurapen proba bat izango du ez ohiko deialdian.